



2. ATALA: SUHILTZAILEAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiara fasea	1. Jarduera	Zer dakigu suhiltzaileen inguruan?	Suhiltzaileen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	Su-itzalgailu bat
	2. Jarduera	Bai, esan? Suhiltzaileak	Suhiltzaileen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Ze egoeratan etorriko dira suhiltzaileak?	Ikastetxean gertatu daitezken egoera desberdinak identifikatzea	Kutxa bat Papera Boligrafoa
Ekoizpen fasea	4. Jarduera	Gu suhiltzaile!	Denon aurrean aurrez identifikatutako egoerak antzeztea	

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako suhiltzaileen lana aitzakitzat hartuta, ikasleek ikastetxean gertatu daitezken egoerak identifikatu eta horiei aurre egiteko estrategiak pentsatu beharko dituzte.
- Espezifikoak
 - Suhiltzaileen lan esparruak ezagutzea.
 - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak identifikatzea.
 - Ikastetxean suertatu daitezkeen egoerak antzematea.
 - Gertakizun bat gorputzarekin irudikatzearen prozesuran murgiltzea
 - Egoera desberdinei aurre egiten ikastea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da gelakideei ikastetxean gertatu daitezken egoera eta horiei aurre nola egin erakustea antzerki bidez.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeke proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu suhiltzaileen inguruan?

- Helburua: Suhiltzaileen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko gara su-itzalgu bategin. Asanbladan eserita, su-itzalguaren inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer da objektu hau? Zertarako balio du? Nork erabiltzen du? Ikastetxean non daude objektu hauek? Ezagutzen duzue objektua erabiltzen duen norbait?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotan ez baitugu pentsatu ere egiten ze egoera gertatu daitezken, egoera horien aurrean zer egin behar dugun... Ezjakintasun hori ikasteko irrika pizteko erabiliko dugu.

2. jarduera → “Bai, esan? Suhiltzaileak”

- Helburua: Suhiltzaileen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu

Irakaslearentzako oharra:

- Zer da suhiltzailea? Suhiltzailea suteak itzaltzea lanbide edo jarduera duen pertsona da. Suteez gain, erreskate lanetan eta beste hainbat larrialdi egoeretan ere parte hartzen du, tartean trafiko eta hegazkin istripuak, uholdeak, hurakanak, lurrikarak, suizidioak eta abar
- Ze ezaugarri izan behar ditu suhiltzaile batek? Suhiltzailea izateko fisikoaz haratago beste ezaugarri batzuk ere izan behar dira. Suhiltzaileek taldean lan egiten dute eta beraz taldeko kideek ezaugarri desberdinak izatea komeni da, baina orokorrean enpatia, adorea eta egiten duzun lana gustatzea garrantzitsua da.
- Ze pausu jarraitu behar dira sute baten aurrean? Hona hemen sute baten jarraitu beharreko pausuak:
 - 112ra deitu. 112ra deitzean ahalik eta informazio gehien ematen saiatu behar gara, zenbat eta informazio gehiago eman orduan eta laguntza egokiagoa bidaltzeko aukera izango dute.
 - Sua dagoen gelako ate eta leihoak itxi. Normalean atea ixtea errazagoa izaten da, leihoa ixteko zailtasunak badaude, hobe da zure burua arriskuan ez jartzea.
 - Etxetik irten.
 - Etxeko atea itxi eta giltzak atean jarrita utzi. Giltzak atean jarrita uzten baditugu suhiltzaileek erraztasun handiagoa izango dute etxera sartu eta sua itzaltzeko.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

3. jarduera → Ze egoeratan etorriko dira suhiltzaileak?

- Helburua: Ikastetxean gertatu daitezken egoera desberdinak identifikatzea
- Jarduera honetan imintzioka harituko gara. Kutxa baten ikastetxe baten gertatu daitezken egoerak idatziko ditugu. Ikasleek, binaka, hirunaka edo talde txikitan kutxak papertxo bat aukeratu beharko dute eta imintzioka beste ikaskideei egoera hori azaltzen saiatuko dira. Beste ikasleek ze egoera den eta zertan ari diren identifikatu beharko dute.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko dituzu adibide moduan egoera batzuk.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

4. jarduera → Gu suhiltzaile!

- Helburua: Denon aurrean aurrez identifikatutako egoerak antzeztea
- Jarduera honetan aurrez identifikatutako egoerak antzeztu beharko dituzte ikasleek. Ikasle talde bakoitzak ikastetxean gertatu daitezkeen egoera erreal bat aukeratu beharko du eta egoera horri nola aurre egin pentsatu beharko du. Behin hori egindakoan, ikasgelaren aurrean antzeztu beharko dute. Horretarako egoera horietan sentitu daitezkeen emozioak kontuan hartu eta azaleratu beharko dituzte.

Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, ziklo baxuagoetarako erabiliko diren trukuak simpleagoak izango dira. Ziklo altuagoetan berriz, trukuak konplikatuagoak izango dira eta emanaldietan bakoitzak izango duen presentzia handiagoa izango da.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

Ikastetxean gertatu daitezkeen egoerak:

- Suteak.
- Ateak blokeatuta gelditzea, gelatik irten ezinda egotea.
- Leherketa.
- Erle kabiaren bat egoeta.
- Teilatu zati bat erortzea.
- (...)

© EITB MEDIA

